

TOLOSALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko irailaren 17a. IX. urtea. 2.644. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Pistako txirrindularitzan nagusi dira, Irisarri eta Iriarte

Espainiako txapelketan urrezko eta zilarrezko domina bana eskuratu dituzte, Madrilén **06**

Bizikletaren erabilera bultzatu nahi du Mugikortasun Asteak


Adunan hasita, eskualdean bizikletaren gaineko hainbat ekitaldi izango dira 'Aire Garbia, hau da zure mugimendua' lelopean **03**

Gipuzkoak irabazi du Zazpi Herrialdeen txapelketa

Tolosaldeko hainbat kirolarik parte hartu du herri kirol jaialdian **07**

Agirrezabalak irabazi du Mendiko Espainiako Kopa

Ibartarrak Kopako azken proba ere irabazi du; Ibarbiak hirugarren amaitu du **06**



ICOR/ADARRE

→ **Jeyson Manuel Cortes, garaile.** XXXII. Ibarako San Bartolome Txirrindulari Saria irabazi du Cortesek helmugako marra bakarrik pasaz. Jubenil mailako 75 kilometroko proban, honen atzetik sailkatu dira Jon Madariaga eta Iker Gurutzalde. Bestetik, Ibarren bertan, III. Ibarako Duatloia izan da Sendi Ekintza elkarteak antolatuta. Olatz Odriozola eta Luis Mari Urizar izan dira irabazleak; proba nagusietan 140 partaide izan dira eta hauren mailan, berriz, 73. **07**

 **KLIKMETROAK**

*Klik eginez,
egin metro bat
kilometroen alde.*

AHORA!
ENK **TOLOSA**

klikmetroak.kilometroak.net/metroa



matrikula
irailak 2 -13

bulego ordutegia
09:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00

Aitzol
Udal Euskaltegia

Rondilla 34-B 3.
20400 TOLOSA
tel.: 943651006 / 943652343

Irudia › Tolosa



LAN ISTRIPUA SALATZEKO KALERA

Ordiziar bat hil zen iragan ostegunean lan istripuz, Beasaingo Estanda galdategian. 58 urte zituen hildakoak, eta Tolosan bizi zen. Lan istripua salatzeke Estandako langileek 24 orduko lanuztea

egin zuten ostiralean. Halaber, elkarretaratzeak ere egin zituzten, eguerdian lantegiaren aurrean, eta ostiral iluntzean, Tolosako Trianguloa plazan —irudian—, eta herritar ugari elkartu ziren. A. IMAZ

Irudia › Tolosa-Alegia



PENTSIOEN MURRIZKETEN AURKA

Pentsioen erreformaren aurka kalera irten ziren iragan ostegunean. Besteak beste, pentsioak KPlaren eboluzioaren arabera aldatzeko aldarria

zabaldu zuten. Tolosako Trianguloa plazan —goian— eta Alegiako udaletxe aurreko plazan —behean— egin zituzten elkarretaratzeak. I.U./HITZA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Alberto Gonzalez antolatzailea, Asier Garagarza izazko irabazlea, eta Ibai Iriarte Tolosako alkatea. Atzean, Josu Otaegiren argazkia. HITZA

Argazki Lehiaketako finalisten erakusketa Aranburu jauregian

40 argazki aukeratu dituzte, eta hilaren 28ra arte bozkatu daitezke; Josu Otaegi argazkilaria omendu dute

I. Terradillos Tolosa

Urteroko argazki lehiaketa egin ostean erakusketa antolatu ohi dute Tolosako Udalak eta Tolosa Gasak. Bada, dagoeneko ikusgai jarri dute Aranburu jauregian, eta bisitariak gustukoak duten argazkiari bozka emateko aukera

dute irailaren 28ra bitarte. Gainera, botoa emateagatik, kamera digital baten zozketan sartuko dira. Asteartetik larunbatera izango da zabalik, 17:30etik 20:30era.

Tolosako leku ezezagunak izan da aurtengo egutegiko gaia, eta lehiaketara aurkeztu diren 530 argazkietatik, 40 argazki aukeratu dituzte erakusketarako. 41. argazki bat ere badago, 0 zenbakiduna. Duela gutxi hil den Josu Otaegi argazkilaria tolosarrari omenaldia egin nahi izan diote, eta berak ateratako azken argazkietako bat jarri dute sarreran, Tolosako San Fermin Txikian eginikoa.

→ Laburrak

Erretirodunen bazkarirako izen ematea, udaletxean

LEABURU › Igandean, hilaren 22an ospatuko dute Leaburu-Txaramako erretirodunek euren eguna. Urtero moduan, Leaburuko Zazpi Bide elkartearen bazkalduko dute, eta izena emateko, udaletxera deitu beharko da, bihar izango delarik azken eguna. Bestalde, egun horretarako laguntzeko prest daudenak 648 608 762 zenbakira deitu ahaliko dute.

Odola emateko aukera gaur, Muñagorri

BERASTEGI › Muñagorri ikastetxean odol emateak egingo dira gaur 18:30etik 20:30era bitarte. Antolatzaileek bitiko odol emateak deitu dituzte, eta inoiz emate izan ez direnak animatu dituzte parte hartzera, «behar handia dagoelako».

Silo bolak egiteko plastiko bilketa egingo dute etzi

BERASTEGI › Silo bolak egiteko erabiltzen den plastikoaren bilketa egingo dute etzi, ostegunean. Hori dela eta, bezperan, hau da, bihar, San Martingo paroki ondoan finkatuta dagoen bilketa puntura eramatea eskatu dute udaletik. Halaber, plastikoak lotuta ematea eskatu dute, haizeak altxa ez ditzan. Zerbitzua doan dela gogoratu du udalak, eta bilketa puntura norberak eraman behar dituela.

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanak. 08:00etatik 14:00etara etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperimentzia handia duen emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. Interesa duen edonork dei dezala ondorengo bi telefono zenbakietako batera: 943 69 68 82 edo 606 52 19 92.

ETXEBIZITZA

Alokairuan. Alkizan, 120 m²ko azalera duen baserri zatia alokatzen da. Erabat berritua dago, eta bi solairu ditu. 60 metroko terraza dauka eta baratzerako 1.000 metroko terrenoa eskaintzen da. Hilero 750 euro. Interesatuak deitu dezatela 619 349 385 telefono zenbakira.



Itxaso Arandia, Garbiñe Mendizabal, Unai Igartua, Rosa Arregi eta Ibai Iriarte VII. Mugikortasun Asteko aurkezpenean. M. IRAOLA

Bizikletaren erabilera sustatuko du VII. Mugikortasun Asteak

Gaurtik hasita igandera bitarte, bizikletaren inguruko ekimen hainbat antolatu dituzte: ikastaroak, tailerrak, solasaldiak, ibilaldiak...

Iraila eta urria bitartean aparkaleku sarea hobetuko dute bailarako bederatzirerrietan

Mikel Iraola

Aire Garbia, hau da zure mugimendua lelopean, eta mugikortasun kultura berri bat aldarrikatzeko helburuarekin, Mugikortasun Astea antolatu dute zazpigarren urtez eskualdean. Europa mailan

ospatzen den kanpainarekin bat eginez, gaurtik hasita igandera bitarte, hainbat ekitaldi antolatu dituzte bailarako udalek eta eragilek Tolosaldea Garatzenekin batera.

Eskualdean auto pribatuaren erabilera altua da sentsibilizazio

kanpaina hau antolatzearen zergatia. Izan ere, Garbiñe Mendizabal, Tolosaldea Garatzeneko teknikariaren esanetan, «Tolosaldeko biztanle bakoitzeko 0,81 ibilgailu daude», Gipuzkoa eta EAEko motorizazio tasak baino altuagoa. Bailararen landa izaera, eskualde bakoitzeko errepide sarea, orain arteko beharretara egokitzeko ez zen garraio publikoko eskaintza eskasa eta bidegorri sare amaitu gabea dira, besteak beste, tasa hori horren altua izatearen arrazoiak.

Udalen eronka nagusia, eskualdean auto pribatuaren erabilera murriztea da, izan ere, 2007ko

EAEko mugikortasunaren ikerketa baten arabera, Tolosaldeko biztanleen joan-etorrien %54 autotz egiten zen, %10a garraio publikoan eta %36a oinez edo bizikletaz. Horretarako, Tolosaldea Garatzen eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, hainbat ekimen jarri dira martxan.

Horiertako bat, eskualdeko herriarteko autobus bidezko eskaintza berrantolatzeara izan da. Alde batetik, TSST Tolosa eta Dostia arteko zerbitzua hobetu da, maiztasuna eta ibilbidea erabiltzaileen beharretara egokituz. Bestetik, Tolosaldea Bus eskualdeko garraio zerbitzua diseina-

tzen ari dira Garraio Sailean, eta 2014ko urtarriletik aurrera linea eta ordutegi berriak prestatuko dituzte. Bestalde, martxoan Irigarritasun plana abian jarri zuten Tolosan. Proiektu honen bitartez, 14 pertsona kontratatu ziren herriartean lehentasunak ardatz zizuten obra txikiak egiteko, bereziki, Rondilla eta San Frantzisko pasealekuko oinezkoen pasabideak eta espaloiak txukuntzeko.

Bizikleta sustatu nahian

Garraio publikoa eta irigarritasunaz gain, bereziki, indar handia jarri dute udalek bizikletaren erabileran, eta horregatik Tolosaldeko Bizikleta Plana jarri zuten martxan. Eguneroko joan-etorrietan ibilgailu honen erabilera areagotzea du helburu. Tolosan, esaterako, 30 gunea ezarri zuten ekainean, txirriindularen segurtasuna bermatu eta CO2 isurketak gutxitzearen. «Tolosaldeko CO2 isurketen %64 ibilgailuenak dira, eta hori gutxitu nahi dugu», adierazi du Ibai Iriarte, Tolosako alkatea.

Iraila eta urria bitartean, berriz, bizikleta aparkaleku sarea hobetuko dute eskualdeko bederatzirerrietan: ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Ibarra, Anoeta, Irura, Villabona, Zizurkil eta Asteasuk, hain zuzen. Horretarako aldundiaren diru-laguntza bat jaso dute. Bestalde, herri bakoitzeko bidegorri sareak osatzen ari dira Villabona eta Zizurkil. Horren berri emateko, bilera irekia antolatu du ostegunean Gaztelekuan Amasa-Villabonako Udalak, 19:30ean.

Gaurtik aurrera, egitasmoak

VII. Mugikortasun Astearen barnean, egitasmoak antolatu dituzte. Adunari izango da lehen, gaur goizean Agenda 21 Foroa eta *aPARKElekuak* kale ekintza egintzo baitute. Bihar, berriz, *Sobre Ruedas* dokumentala proiektatuko da 19:00etan Bidaiarien Txokoa. Ironiaz eta umorez betetako zinta da, hiri handi eta ez handietan kotxearen dependentsia alde batera utzi eta mugikortasun kultura berri bateko proposamen desberdinak aurkezten ditu. Ondoren, Alfonso Sanz, mugikortasunean adituarekin solasaldia izango da. Ostegunean, berriz, bizikletan ikasteko ikastaroa izango da Tolosan, eta udaletxean izena ematea beharrezkoa da.

↓ Egitaraua

IRAILAK 17, ASTEARTEA

■ **Aduna.** Goiz osoan zehar, Eskola Agenda 21 Foroa eta *aPARKElekuak* kale ekintza.

IRAILAK 18, ASTEAZKENA

■ **Tolosa.** *Sobre Ruedas* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia Alfonso Sanz, mugikortasunean adituarekin 19:00etan, Bidaiariaren Txokoa.

IRAILAK 19, OSTEGUNA

■ **Tolosa.** 11:00etan, bizikletaz segurtasunarekin ibiltzeko tailerrak ikastetxeetako umeekin Trianguloan.

■ **Tolosa.** 10:30ean eta

18:00etan. Herriko errepidetik bizikletaz ibiltzeko ikastaroa.

Doakoa da, baina udaletxean izena ematea beharrezkoa da.

■ **Amasa-Villabona.** 19:30ean. Bidegorriaren sare nagusiaren aurkezpena Gaztelekuan.

IRAILAK 20, OSTIRALA

■ **Ibarra.** 17:00. San Bartolome plazatik abiatuta, bizikleta bira.

■ **Tolosa.** 18:30-19:00. 30 gunetik bizikleta bira.

IRAILAK 21, LARUNBATA

■ **Amasa-Villabona.** Bizikletaren bigarren eskuko azoka Berdura plazan. 08:00-10:30 bitartean material jasotzea;

10:30etik 14:00era azoka; 11:00etatik 12:00etara, bizikletak konpontzeko tailerra; 14:00etatik 15:00etara sobratutako materiala jasotzea.

■ **Tolosa.** 17:00. *Zein erbi zein dortoka! Zein iristen da azkarrago Plaza Berrira?* ekimena Poxpolo eta Konpaniarekin. Sketch bat grabatuko dute bitartean. Ondoren, txokolate jatea.

IRAILAK 22, IGANDEA

■ **Tolosaldea.** KMK 2013 Tolosa eta Iristaka Patinaje taldearen laguntzarekin, Bizibira Tolosaldean, bidegorritik barrena. 10:30ean Asteasu eta Ikaztegietatik irteera. 11:30ean, Anoeta,

hamaiketako, ipuin kontaketa, eta eskualdeko bizikleta denden eskutik sari banaketa. Rural Kutxa taldeko bi txirriindulari profesional ere izango dira.

IRAILAK 26, OSTEGUNA

■ **Alegia.** *Sobre Ruedas* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia.

IRAILAK 21-22-28-29

■ **Zizurkil.** Ikasi/Gogora ezazu bizikletan ibiltzen neska! izeneko emakumei zuzendutako ikastaroa. Aurrera plazan izango da egun horietan, 10:30ean. Izen ematea, Zizurkilgo udallean. Prezioa: 30 euro.

Aresoko Udala

ZEL. No. USATEGIEN ENKANTEA
BIRGARRO DIA USDA
AHISO (PARTARRAZA)

TEL. 948.33.127 - 408.928.20
Dokumentuak 20 minututara

Pasabidearen aurkako lekuak
Udalaren Udaltzako Buzte Anonimo Buzteak
Lago erakundeak: irailaren 23.00an, irailaren 19.00an
2. irailaren irailaren 28.00an, irailaren 19.00an

Ikasturte berriaren hasiera nabari da Tolosaldean, eta ugaritzen ari dira pixkana, auzoetako jaiak, azokak eta kultur jarduerak.

Udazken giroko asteburu pasak

Irrean Urkizu

Irailaren bigarrena, ikasturte berria hasia, eskualdean zabalitzen hasia da udazken giroa, urtaroa oraindik iritsi ez den arren. Aurrerantzean herri eta auzo guztietan izango da zer ospatua, eta asteburuan, Alegiako Kalebeheran eta Tolosako Uganean izan dute festarako aukera.

Kalebeheran, ostiralean abiarazi zituzten jaiak, suziarrekina eta buruhandiekina, eta afakorburu bitarte, auzoko gazte txoenek hartu zuten plaza. Larunbatean birsolen txanda izan zen, jala txepelketa eta krosarekin, eta igandean, kostaldera begira jarri ziren alegiarak, txakolina eta sardina erreak izan baitziren destaketa.

Ugane auzoan, berriz, larunbatean hasi zen egitaraua, txirridulari probarekin. Hau amatritukoan, Itxaztegetako Inanol Mendizabal eta Altor Arraizna gasteak joko eta disko jaurtitzean aritu ziren, eta bertsoari gasteekin pote-

oa ere izan zuten, auzo bezkariaren aurretik. Eguna arratsaldeko jokoekin eta afariarekin borobildu zuten.

Villabonan ere goiz jendetsua izan zen larunbeteakoa, azoka berria antolatuta baitzuten "Eremingo ikastolan". Elkargo eta artisautza produktuek ikusmina sortu zuten, eta baita elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketak ere.

Euskal Herriko emakume taldeek Tolosara egin zuten hitzordua larunbatean. Batek! topaketekin, eta gizarteako esparru guztietan antolatuz hazuskeretarako egin zituzten, 30 emakume ingururik. Beste emakume batzuk, berriz, beren izenaren harira egun pasa egin zuten igandean: Berrakoko Euskun auzoan elkartu ziren, azken hamabost urteotan bezala, Izaskun izeneko emakumeak, eta Osoerriko nahiz Buzkaitik ere etorri ziren zenbat.

Bai Euskal Herriari taldeko kideek, berriz, Herriora Irteera egin zuten igandean, eta plaka bat jarri zuten tontorean.



Ugane auzoa | Mendizabal eta Arraizak ikusmina piztu zuten, Mokadutxo hartu zuten, gero, LURUZU



Kalebehera auzoa | Sardina erreek eta txakolinak jende ugari elkartu zuen auzoko plazan, COA KASER



Kalebehera auzoa | Ostralean buruhandiak izan ziren, LURUZU



Hernio | Bai Euskal Herriari ekimeneko kideek Herriora Irteera egin eta plaka jarri zuten tontorean. HITZA



Tolosa | Batek! jardunaldian 30 emakume inguru elkartu ziren. ITZELA/URKIZU



Izaskun auzoa | Hamabosgarrenegun zuten, igandean, Izaskun izeneko topaketa. 66010010



Villabona | Arrakasta izan zuen azoka bereziak, Txerminen, LURUZU

Kirolak**↓ Kirol emaitzak****ARETO FUTBOLA**

BIGARREN B MAILA
Lehen jardunaldia
Ibarra-C. Inter Moviestar 1-5

Sailkapena

1. Atenea Ikusnet	3p
2. Debabarrena	3p
3. Colo Colo	3p
4. Zierbana	3p
5. C. Inter Moviestar	3p
6. Fuenmayor	3p
7. San Juan	3p
8. Sala Quinto	0p
9. Pinseque	0p
10. Maderas Altoaragon	0p
11. Santurtzi	0p
12. Ibarra	0p
13. Xota	0p
14. Sigüenza	0p
15. Arnedo	0p

Hurrengo jardunaldia

Xota-Ibarra

BIGARREN B MAILA

Lehen jardunaldia asteburu honetan jokatuko dute Laskorain-Egintza

Buruntza-Tolosala Hirukide

FUTBOLA**ERREGIONAL OHOREZKOA**

Lehen jardunaldia
Tolosa-Aurrera 0-0

Sailkapena

1. Beti Gazte	3p
2. Real Union	3p
3. Bergara	3p
4. Hondarribia	3p
5. Getariako Keta	3p
6. Ostadar	3p
7. Touring	1p
8. Aretxabaleta	1p
9. Anaïtasuna	1p
10. Antzuola	1p
11. Tolosa	1p
12. Aurrera	1p
13. Hernani	0p
14. Aloña Mendi	0p
15. Vasconia	0p
16. Lagun Onak	0p
17. Berio	0p
18. Zarautz	0p

Hurrengo jardunaldia

Vasconia-Tolosa

MENDI LASTERKETA**GRANADAKO BUFF SARIA****ESPAINIAKO KOPAKO****AZKEN PROBA****Sailkapena**

1. Leire Agirrezabala	3:23:51
2. Eva Maria Moreda	3:28:47
3. Montse Martinez	3:30:50
4. Aitziber Ibarbia	3:40:03

Sailkapena

1. Luis Alberto Hernando	2:35:39
2. Manuel Merillas	2:36:23
3. Aritz Egea	2:38:01
6. Hassan Ait Chaou	2:41:47

MENDI DUATLOIA**III. IBARRAKO MENDI****DUATLOIA****Proba luzea****Sailkapena**

1. Luis Mari Irizar	1:18:00
2. Unai Yus	1:20:32
3. Julen Larruzea	1:21:05

Sailkapena

1. Olatz Odriozola	1:38:25
2. Saioa Olite	1:55:06
3. Laura Perez	1:56:35

Proba laburra**Sailkapena**

1. Luis Mari Garikano	0:49:00
2. J. I. Moreno	0:53:43
3. Unai Iribar	0:55:06

Sailkapena

1. Priscilla Mappas	
---------------------	--

TXIRRINDULARITZA**IBARRAKO 32. SAN BARTOLOME SARIA****Sailkapena**

1. Jeyson Manuel Cortes	1:33:21
2. Jon Madariaga	1:33:24
3. Iker Gurutzalde	1:33:41

ESPAINIAKO PISTAKO**TXAPELKETA**

Jon Irisarri bi urrezko domina eta bi zilarrezko eskuratu ditu, Ane Iriarte bezala. Nahia Domingezez brontzezko domina bat eskuratu du.

HERRI KIROLAK**ZAZPI HERRIALDEEN ARTEKO TXAPELKETA****Sailkapena**

1. Gipuzkoa	56 puntu
2. Lapurdi	54 puntu
3. Nafarroa Garaia	53 puntu
4. Bizkaia	40 puntu
5. Araba	31 puntu
6. Nafarroa Behera	28 puntu



Espainiako txapelketan lehia ibili diren euskal selekziozko txirrindulariak, Madrilen. HITZA

Espainiako txapelketetan eskualdeko kirolariak gorengo mailan ibili dira

Jon Irisarri, Ane Iriarte eta Leire Agirrezabalak podium-aren gailurra zapaldu dute asteburu honetan

Asier Imaz

Tolosaldeko hainbat kirolari etxetik urrun ibili dira asteburu honetan. Alde batetik, Espainiako Pistako Txirrindulari Txapelketak jokatu dira Madrilen, eta bestetik, Espainiako Kopako azken mendi lasterketa proba lehia da Granadan.

Jon Irisarri, Ane Iriarte, Nahia Domingezez eta Maddi Amondarainek Madrilen egin dute egonaldia. Ostiralean hasi ziren pistako txapelketak, eta hiru egunetan, guztira, bost domina eskuratu dituzte: Jon Irisarri eta Ane Iriarte bi urrezko eta bi zilarrezko, eta Nahia Domingezez brontzezkoa, keirin proban.

Podiumeko gailurra birritan zapaldu ostean, gustura zegoen Ane Iriarte billabonatarra, eta bere ingurukoei, Abelino Perea entrenatzaileari, Gipuzkoako se-

lekzioari eta bere gurasoei esker eman nahi izan zizkien. Iriarte bi urreak puntuazioan eta taldekako abiadura proban lortu zituen, eta zilarrezko beste biak, jazarpean eta 500 metrotan. Horrez gain, skrachean laugarren sailkatu zen.

Txapelketetara fisikoki ondo iritsi zela dio Iriartek, baina ostiralean, erdi gaixo sentitu zen. Hala eta guztiz ere, gorputzari buelta ematea lortu eta lehen domina egun horretan irabazi zuen: «Zilarra irabazi nuen ostiralean, eta urduritasunak uxatzeko eta konfiantza lortzeko balio izan zuen». Bere emaitzak ahaztu gabe, talde guztiak eta Euskadiko selekzioak egindako lana azpimarratu nahi izan zuen Iriartek: «Elderrek eta Ziortzak izugarritzko lana egin zuten niretzat, eta oro har, Euskadiko selekzioa oso ondo ibili da, puntuazioan erakustaldia eskainiz». Aipatu, junior mailako talderik onena, hain zuzen ere, Euskadikoa izan zela.

2012ko urrian hasi zen Ane Iriarteren denboraldia, eta asteburu honetan amaituko da, Barretzelonan.

Iriarte bezala, Jon Irisarri leaburuarra bi aldiz igo zen podium-aren gorenera, skrach proban eta madisonen. Zilarra abiadura probetan lortu zuen, taldekakoan. «Uste baino askoz hobeto aurkitu naiz», zioen Irisarri, nahiz eta atsedean hartzeko denborarik ez zuen izan: «Urduri ibili naiz, lo asko egin gabe, proba asko izan baitira. Denbora asko pasatu dut bizikleta gainean». Azken urrezko domina, txapelketako azken proban lortu zuen Irisarri, eta postasun eztanda hori izugarria izan zela zioen, ikaragarri disfrutatu baitzuen une horrekin.

Euskal selekzioak egindako



Agirrezabala podium-ean. HITZA

lana ere azpimarratu zuen leaburuarrak, «oso ondo ibiltzeaz gain, uste baino emaitza hobeak lortu baikenituen».

Eskerrak emateko garaian, familia osoa izan zuen gogoan leaburuarrak. Horrez gain, Emaitz Izagirre entrenatzailea, Amador Granados eta Euskadiko autatzailea aipatu zituen.

Mendi lasterketa

Leire Agirrezabala ibartarrak Espainiako Kopa irabazi zuen Granadan, igandean. Bertan, kopako laugarren eta azken lasterketa jokatu zen. Korrikalariek 27,5 kilometroko ibilbidea egin zuten, eta emakumeetan, Agirrezabala izan zen azkarrena. Ibartarraren atzetik, laugarren postuan, Aitziber Ibarbia zizurkildarra sailkatu zen. Granadan lortutako puntuei esker, Espainiako Kopako sailkapen nagusia Agirrezabalak eskuratu du, eta Ibarbia, hirugarren postuan gelditu da. Beteranoren artean ere bada ohorezko postua eskuratu duen eskualdekorik, hain zuzen ere, Nerea Amilibia. Zizurkildarrak bigarren postuan amaitu du Espainiako Kopa.

berria bekak 2013

Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabekoenzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Zuzenketa-itzulpengintza arloa

beka bat

EDUCARRIA:

- Federatzi hilebeteko iraupena, urrik itxialera
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIA! Andoainen duen egoitza nagusia

Ekitalari aukeratzeko epea: 2013-09-25 • Ekitalari egiteko orria eta beka diruak: www.berria.info telefonoan eskatu daitezke

berria

Mendian eta errepidean, Ibarrran kirolariek herria hartu dute



Euskal Herriko mendi duatloien zirkuitua Ibarrran jarri zuten abian, larunbatean. Korrika, bizikletan eta berriro korrika ibili ziren partaideak. I. URKIZU

XXXII. Ibarrrako San Bartolome Txirrindulari Saria Jeyson Manuel Cortes kolonbiarrak irabazi du

Asier Imaz Ibarra

Larunbatean eta igandean kirol probak egon dira Ibarrran. Herenegun, San Bartolome Sariaren 32. edizioa jokatu zen, eta bezperan, III. Ibarrrako Duatloia.

Jubenil mailako txirrindulari proban, Jeyson Manuel Cortes izan zen azkarrena. Helmugara Jon Madariaga eta Iker Gurutzalderen aurretik iristea lortu zuen Cortesek. Hauen atzetik, 60 txirrindulari gehiagok amaitu zuten 75 kilometroko proba. Gipuzkoako federazioaren datuen arabera, 14 izan ziren helmugara iristea lortu ez zutenak. Irabazleak ibilbidea egiteko, batz bestea, 48,21

kilometro orduko abiadura lortu zuen.

Lasterketa gorabeheratsua izan zen. Lehenik eta behin, txirrindulariek geldirik egon behar izan zuten denbora luzez, eta ondoren, Amarotzen izan zen istripua medio, ibilbideak oztopoak izan zituzten. Kirol mailan, eskualdeko txirrindulariek gogotik egin zuten lan. Xabier San Sebastian tolosarra adibidez, ihes egin da ibili zen, baina tropela atzean uztea ez zuten erabat lortu. Amaieran, Limousin Cartonajes taldeko Jon Madariaga altzotarra bigarren iritsi zen, eta talde bereko Mikel Matxinea berastegierra bosgarren.

III. Mendi Duatloia

Sendi Ekintza elkarteak antolatutako Ibarrrako III. Mendi Duatloia larunbatean jokatu zen. Olatz Odriozola izan zen ibilbide luzea egin zuten artean, emakumerik azkarrena. Gizonezko-

tan, berriz, Luis Mari Urizarrek irabazi zuen proba. Aipatu, Ibarrrako saioarekin abiatu dela Euskal Herriko mendi duatloien zirkuitua.

Ibarrrako proba luzean 5,78 kilometro egin zituzten lasterka; ondoren, bizikletaz 15 kilometro; eta, amaitzeko, 2,89 kilometro berriro ere lasterka.

Proba laburrean 14 urtetik 16 urtera bitartekoei ere aukera eman nahi izan zitzaion aurtengo edizioan, eta hauek gainontzeko lasterkariekin batera, ibilbide luzearen erdia osatu zuten. Lasterketa honetan azkarrenak Luis Mari Garikano eta Priscilla Mappas izan ziren. Aipatzekoa da, azkenik, 7 eta 13 urte artekoek ere aukera izan zutela duatloian trebatzeko, goizean egindako zirkuitu berezi batean.

Antolatzaileak oso gustura agertu dira larunbateko egunarekin: «Balantzea oso positiboa da, bai goizekoa eta baita arratsalde-

koa ere. Proba nagusietan 140 partaide irten ziren, eta haurrenean 73. Horrek gurasoak, jaia, ilusioa... suposatzen ditu, eta asko balio du».

Horrelako kasuetan, antolatzaileentzat albisterik onena arazorik, lesiorik edo kolperik ez izatea izan ohi da, eta alde horretatik ere, gustura agertu dira mendi duatloia antolatzaileak, guztia «oso ongi irteaz gain, kritika onak entzuten ari baikara».

Ibarrrako proba finkatzen doa, eta kirolariek euren egutegian markaturik dute. Herrian ere gorpuzten doan egitasmoa da, eta parte hartzaile ibartarren zenbakia horren isla da. Horrez gain, atzean lanean dabiltzanak aipatu behar dira: «Lau edo bost laguneko lantalde bat gaude, baina gero, egunean bertan edo aurretik, jende gehiago ibiltzen da. Guztiak gustura ibili daitezten saiatzen gara, bai txirrindulariak eta baita boluntarioak ere».

Eskualdekoak nagusi Zazpi Herrialdeen Arteko Txapelketan

Baigorri jokatu den herri kirol jaialdian Gipuzkoa izan da puntu gehien bildu dituen herrialdea

A. Imaz

Zazpi Herrialdeen Arteko Txapelketa jokatu zen larunbatean Baigorri. Xiberoak ez zuen parte hartu eta gainontzeko seietan onena Gipuzkoa izan zen, Lapurdiren eta Nafarroa Garaia aurretik. Eskualdeko herri kirolari ugari osatu zuten Gipuzkoako aukeratuen taldea, eta lan polita egin ondoren, txapela soinean zutela itzuli ziren Behe Nafarroatik etxera.

Lokotx biltze proban, Eneko Garmendia baliarraindarrak hirugarren sailkatu zen, irabazlearengandik 26 segundora, eta bigarren postutik segundoko bakarrera. Lasto jasotze lehia, gipuzkoarren izenean Asteasuko Andoni Agirreurreta aritu zen. Partaide guztietan onena izan zen asteasuarra, 24 jasoaldi lortu baitzuten. Bigarren sailkatua, Lapurdi, 19rekin gelditu zen. Trontzan, eskualdeko bikotea bigarren gelditu zen, Nafarroa Garaiko bikotearen atzetik. Unai Iraola ikaztegi-tarrak eta Jokin Garmendia baliarraindarrak osatu zuten trontzako taldea. Aizkoran, Joseba Otaegi hirugarren postuan sailkatu zen, Aitzol Atutxa eta Jon Rekondoren atzetik.

Eskualdeko azken ordezkariak, sokatiralariak izan ziren. Ibarrrako taldea garaipenetik gertu ibili baldin bazen ere, hor gelditu zen, lehen postuaren atean. Proba horretan onenak Abadiño-ko bizkaitarrak izan ziren, eta ondoren sailkatu ziren ibartarrak. Hirugarren postuan Lapurdiko Napurrak izan ziren.

◉ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



BIBI

(2013ko irailaren 13an hil zen)



Lagunen lagun
Umiltasuneko laguntzaile
Gure barruak bete dituzu
Bizitzaren argitasuna erakutsiz

Zure Betiko lagunak
Rosa, Isabel, Ruth, Ana, Gloria, Edurne, Iñaki

TOLOSA, 2013ko irailaren 17an



≈ 20°
≈ 13°

GOIZA 05:00
ARRATSALDEA 19:00
BEROENA 22°
HOTZENA 16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
Faxa: 943 65 00 18
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa.
Kudeatzailea: Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona-aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari




'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

XVII. Udako Argazki Lehiaketa



BELGIKATIK HONDURASERA, ESKOZIATIK ETXERA

Iñigo Iruzunen argazkia Amberesekoa da, Belgikan: «Batxilerramaieran egiten den ikas bidaian ateratakoa da. Bertan, Escalda ibaia eta Ambereseko ilunabarra ikus daitezke», adierazi du. Maddi Garmendiak Honduraseko iparraldean dagoen Roatan irlan ateratako ar-

gazkiarekin parte hartu nahi izan du: «Iluntze zoragarri hauetaz gozatzeko aukera izaten genuen egunero», argitu du ikaztegiak. Iker Albusik Eskoziako lakuen edertasuna erakutsi nahi izan du: «Liluratuta utzi gintuzten inguru horiek». Ainhoa Lopezek, parrandatik

bueltan topatutako egunsenti polit bat bidali du: «Harkaitzak Mutrikuko Saturrararen hondartzarenak dira, eta ikusten den hondarra Ondarroako hondartzarena. Nire ustez argazki hau oso berezia da, Gipuzkoa eta Bizkaia-ren zati txiki bat ageri delako». IRUZUN/GARMENDIA/ALBUSI/LOPEZ

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13. Gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.

HITZA egunkariak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

MAUKA berria GAURKO ESKAINTZA

Gozogintza sortzailea ezagutu Cookie Dreamekin

Prezioak
Cupcakes tailerra haurrak 18€
Cakepops tailerra helduak (haurrak doan) 50€
Fondant hastapen tailerra helduak 45€

COOKIE DREAM Txingudi zentru komertziala Bentas auzoa IRUN 20305 - GIPUZKOA Tel.: 943-62 52 10 Facebook cookie dream

www.mauka.eu **berria taldea**

Plaza Etxeberri Pedro Mari Otaño Plaza 943 69 19 36 Zizurkil

J A T E T X E A

sukaldari bat behar dugu

dei gaitzazu 616 64 78 69 telefonora

www.plazaetxeberrri.com